

Errealitate birtualeko *made in Euskadi* aplikazioak adimen- desgaitasuna duten pertsonen autonomia sustatzeko

- *Euskadiko Down Sindromearen eta beste Adimen Urritasun batzuen Fundazioa TECNALIArekin lankidetzan ari da adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen beren eguneroko zereginak ingurune seguru batean entseatzeko lagunduko dieten tresna teknologikoak ezartze aldera. Tresna horiek aukera emango diete ustekabeei aurre egiten ikasteko.*
- *Horretarako, errealitate birtualeko betaurrekoen eta gailu mugikorren bidez eguneroko esperientziak simulatzen dituzten esperientziak garatu dituzte, hala nola, metroan bidaiatzea eta garbigailua erabiltzea.*

Bilbo, 2025eko otsailaren 19a. Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzat, eguneroko zereginetan gertatu ohi diren ezustekoak dira segurtasun-ezaren eta desorientazioaren eragile nagusietako bat. *Hori dela eta*, Euskadiko Down Sindromearen eta beste Adimen Urritasun batzuen Fundazioak (EHDSF), errealitate birtualeko eta errealitate areagotuko teknologian oinarritutako aplikazioak garatu ditu TECNALIA ikerketa eta garapen teknologikoko zentroaren eskutik. Aplikazio horien bidez, adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen aukera eman nahi zaie *ingurune seguru eta kontrolagarri batean entrenatzeko eguneroko zereginetan sortzen zaizkien arazoak ebazteko behar diren trebetasunak*. Aplikazio horiek, errealitate birtualeko betaurrekoen eta gailu mugikorren bidez, eguneroko esperientziak simulatzen dituzte, hala nola metroan bidaiatzea eta garbigailua erabiltzea.

EHDSFk bere prestakuntza-planean txertatu ditu esperientzia horiek adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen autonomia sustatzeko. Izan ere, lagungarriak izango zaizkie *testuinguru publiko zein pribatuetan, desorientazioa, segurtasunik eza edo blokeoa* eragin ohi dieten ezustekoei aurre egiteko. Gaur egun, 92 profesionalen eta 85 boluntarioz osatutako taldea du EHDSFk. Adimen- eta garapen-desgaitasuna duten 650 laguni eta 1.370 senideri laguntzen diete. TECNALIAz gain, ekimen horretan parte hartu dute APTES Gizarte Teknologia Sustatzeko Elkartek, teknologiaren eta gizarte-eremuaren arteko hibridazio-proiektuetako erreferente den aldetik, eta Metro Bilbaok. Azken horrek lagundu du metroan bidaiatzearen esperientzia errealitate birtualera ekartzen.

“Metroan bidaiatzen dut” eta “Nire garbigailua”

EHDSFk eta TECNALIAk hiru aplikazio garatu dituzte gaurdaino. Lehenengoa “Metroan bidaiatzen dut” izeneko errealitate birtualeko esperientzia bat da, eta Metro Bilbaoren laguntza jaso du. Aplikazio horrek lehenengo pertsonan kontaktatzen du Euskal Herriko Down Sindromearen Fundazioaren instalazioetatik Alde Zaharreko metro geltokiraino eta, handik, Moyuako geltokiraino metroz egindako ibilbidea, bai eta eta alderantzizko bide osoa ere. *Pertsonak*

errealitate birtualeko betaurrekoak jarriko ditu, eta *bidelagun* batek ibilbidean zehar nola jardun behar duen adieraziko dio: nola zeharkatu kalea, nola hartu metrora sartzeko igogailua, nola igaro baliogabetze-makinetatik, nola igo bagoira, nola kargatu metrora sartzeko Barik txartela, edo nola egon adi metroko megafoniatik entzuten diren mezuei. Ibilbidean zehar gerta daitezkeen ezusteko batzuk ere txertatu dira esperientzian, pertsona horri erakusteko nola eskatu behar duen laguntza eta nola jardun behar duen metroan matxura edo atzerapenik izanez gero. Helburua da ezuste horiei aurre egiten jakitea eta, kasuan-kasuan, irtenbide egokia ematea.

Bigarren esperientziak, “Nire garbigailua” izenekoak, errealitate birtualaren bidez erakusten du arropa garbitzeko prozesu osoa, arropa sailkatzetik garbiketa-prozesua amaitu arte. Bidelagun baten gidaritza birtualaren pean, pertsonak orbanak tratatzen, detergentea eta leungarria garbigailuaren kaxatxora egokiro isurtzen, eta programa egokia aukeratzeko ikasten du. Esperientzia horretan, garbigailua erabiltzean gerta daitezkeen zenbait ustekabe ere txertatu dira, hala nola matxurak edo ihesak, egoera horiei nola aurre egin ikas dezaten. Esperientzia hori autonomiarako prestakuntza-ekintzen plangintzan sartuko da, Etxeratu programaren barruan. EHDSFren Etxeratu programak bi etxebizitza ditu, non adimen eta garapen-desgaitasuna duten pertsonak modu independentean bizi baitira, laguntzarekin.

EHDSFk eta TECNALIAk hirugarren aplikazio bat garatu dute, hau ere garbigailua jartzeko esperientzian oinarritua. Oraingo honetan, ordea, errealitate areagotuaren laguntzaz gidatzen da pertsona. Gailu mugikorren bidez, hala nola tabletak eta telefono mugikorrak, aplikazioak laguntza interaktiboa eskaintzen dio pertsonari garbigailua jarri arteko zereginetan, prozesua pausoz pauso azalduz. Horrela, sendotu egiten da aurrez errealitate birtualaren bidez landutakoa.

Teknologia horrek TECNALIAren garapen bat du abiapuntu: Kayrox izeneko plataforma. Plataforma horrek errealitate areagotuko eta errealitate birtualeko murgiltze-aplikazioak sortzeko aukera ematen die adituak ez diren pertsonari. TECNALIAk Kayrox-en erabilerari buruzko prestakuntza eman die EHDSFko profesionalari, etorkizunean modu autonomoan zabaldu ahal izan dezaten errealitate areagotuan eta errealitate birtualean oinarritutako esperientzien liburutegia. Hala, eguneroko beste eremu batzuetan ere laguntza eman ahal izango diete adimen-desgaitasuna edota garapen-desgaitasuna duten pertsonari.

Hemendik aurrera, EHDSFk tresna horiek egokitzen jarraituko du, bai eta esperientzia berriak garatzen ere, egoera berriak simulatu ahal izateko, eta, hartara, adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonari laguntzeko aukerak zabaltzeko. Horretarako, errealitate birtualeko betaurrekoak, esperientzia birtualak grabatzeko 360°-ko kamera, eta Kayrox plataforma erabiltzeko lizentzia erosten lagundu dio TECNALIAk EHDSFri.

Balorazioak

Oscar Seoane Icaran EHDSFko zuzendari gerenteak azaldu duenez, "proiektu honetan parte hartzea oso esperientzia positiboa eta aberasgarria izan da. Horrelako tresnak eskura izateak eta erabiltzeak autonomiaz moldatzeko trebetasunak ingurune kontrolatu eta seguruetan ikasten laguntzen du. Trena horiek aukera ematen diete gure erabiltzaileei egoera jakin batzuei aurre egiteko egoera errealean egon aurretik, eta, hala, murriztu egiten dira ziurgabetasuna eta profesionalei laguntza eskatzeko beharra. Horrek guztiak eragin positiboa du erabiltzaileen autoestimuan".

Haren iritziz, gainera, teknologia berrien erabilerari esker esku-hartzea zerbait ludiko eta motibagarritzat hartzen da. "Kayrox plataformari esker, errealitate birtualeko eta areagotuko murgiltze-esperientzia berriak gauzatu ahal izango ditugu EHDSFn, eta erantzun espezifikoagoa eta pertsonalizatuagoa eman ahal izango diegu adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen prestakuntza- eta laguntza-beharrei", gaineratu du.

Bestalde, TECNALIAko Ana Moyak ziurtatu duenez, "orain arte egin dugun lankidetzarik berezietako bat da hau, eta oso hunkituta gaude; izan ere, teknologia jendeari laguntzeko tresna bat izatea lortu dugu, bereziki gehien behar dutenei laguntzeko tresna bat, eta horrek izan behar du, hain zuzen ere, teknologiaren lehen helburua; TECNALIArentzat, behintzat, halaxe da". Gure aletxoak jarri eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko giltza dugu, teknologia berriek bide berriak irekitzen baitizkigute etengabe aldatzen ari den mundu batera egokitzeke, eta egokitzapen hori askotariko beharrak dituzten pertsonekin batera gauzatzeko. Esperientzia oso gozagarria izan da talde osoarentzat. Ildo horretan lan egiten jarraitzera eta gauzatzen ditugun ekimen guztietan inpaktu soziala sustatzera motibatzen gaitu".

Euskadiko Down Sindromearen Fundazioari buruz

EHDSF onura publikoko eta interes sozialeko erakunde pribatua da, irabazi asmorik gabea. Duela 35 urte hasi zuen bere ibilbidea. Gaur egun, erreferentzia da adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien familiei beren bizi-ziklo osoan laguntzeari dagokionez. Euskadiko erabiltzaileekin eta haien familiekin egiten du lan.

Adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea du helburu. "Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala" oinarritzat hartuta, pertsona ardatz duen esku-hartze eredu baten alde egiten du. Horretarako, programa pertsonalizatu eraginkor, jasangarri eta berritzaileak garatzen ditu, adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen inklusioa, autonomia eta bizitza independentea bultzatze aldera. Horrek guztiak benetako eragina du gizartean; izan ere, EHDSFk kalitateko laguntza eskaintzen du, adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen erabateko inklusioa eta parte-hartze soziala ahalbidetzeko, eskubide osoko pertsonak baitira.

www.downpv.org

Informazio gehiago:

TECNALIA

itziar@vkcomunicacion.com

681 273 464

EHDSF

Oscar Seoane